

TOLOSA ▶

## Langileen autoentzako neurriak

Parkimetroak lortu ahal izango dituzte ▶ 2



# Villabonako Santio jaiak, bihartik hilaren 31 arte

**JAIK** ▶ Errebotea, musika, haurrak eta gazteak izango dira aurtengo protagonistak

**ALKATEA** ▶ Batzordeak egindako lana goraiatu eta denak «ondo pasatzea» nahi du alkateak ▶ 4

TOLOSA ▶

## Etzi nahi du egin gailurra Edurne Pasabanek

K2-ko espedizioak eguraldi txarra izan du orain arte ▶ 3

BALIARRAIN ▶

## Dena prest abuztuko Andra Mari jaietarako

Plater hausketa 8an izango da ▶ 5

ARESO ▶

## Etzi izango da sokatira txapelketako azken saioa

Azpeitin izango da ▶ 7



## Plazaolako burdinolako landaretza garbitzen ari dira

**BERASTEGI** ▶ Hogeitaz gorte eta Aranzadi zientzia elkarte hiru monitore —argazkian— Plazaolan ondare historikoa berreskuratuz ari dira egun hauetan, burdinolako landaretza garbitzen. Andoain, Berastegi, Elduain eta Villabonako udalek, Gaztekutxak eta Aranzadi zientzia elkarteak antolatutako auzolandegia da,

hirugarren urtez. Astelehenean aurkezpena egin eta asteartean hasi ziren lanean. Bi aste pasako dituzte, Berastegiko eskolan jabez eta lo eginez. Arratsaldeetan beste ekitaldi batzuk egiten dituzte: pilota, eskalda, rafting... Aurrerago panel informatiboak jarriko dira inguru horretan. **DANI GIBELALDE ▶ 6**

TOLOSA ▶

## Paleta txapelketako finalistak, erabakita ▶ 3

**ZORROTZ KUTXILERIA**  
TOLOSA  
ITXIERAGATIK DENA %40-ko  
DESKONTUAREKIN

**Itxialdiak Tolosaldean**  
Ezagutu Tolosaldea 39 ibilbide seinalezatuen zehar  
12€

TAO ▶

## IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak neurri bereziak jarri ditu abian lanerako ibilgailua ezinbesteko dutenentzat. Trafikoa Arautzeko Ordenantzak (TAO) zuzenean eragiten dien enpresa eta merkataritza, industri eta zerbitzu establezimenduek banakako parkimetroa lortzeko aukera izango dute aurrerantzean. Araututako aparkaleku guzenera erabilera ordaintzeko sistema bat da banakako parkimetroa, eta ibilgailua jarduerari zuzenean lotuta dagoen enpresa edo establezimenduetan; alegia, ezinbestez ibilgailua erabili behar duten merkatarien eta langileen kasuan aplikatuko du sistema hori Udalak. «Jarduera batzuk desplazamendu ugari eskatzen dituzte, eta garraio publikoa eta zama lanetarako guneak erabiltzeko aukerarik ez dute ematen», dio Tolosako alkate Jokin Bildarratzek. Horrexegatik onartu du Udalak, bere hitzetan, banakako parkimetroa abian jartzea.

Jarduera edo ibilgailu bakoitzeko parkimetro bat lortu ahal izango dute Tolosan kokatutako merkataritza establezimendu, enpresa eta langile autonomoek eta Tolosako helbidea duten ibilgailuen jabeek. Indarrean dagoen aldiko Ordenantza fiskalak arautzen duen salneurri publikoa ordaindu beharko dute, eta «parkimetro guztiek ibilgailuaren matricula eraman beharko dute, biak identifikatzeko aukera emango duen inpresio sistema ageri baten bidez».

Banakako parkimetroa behar bezala erabiltzeko erabilera arauak onartu ditu Udalak, bestalde. Aparkatzen duen gunearen denbora-muga gainditzen badu edo banakako parkimetroa martxan ipini gabe aparkatzen badu zigorra ezarriko zaio erabiltzaileari, «baimendutako denbora gainditzeagatik edo txartelak ez edukitzeagatik parkimetro publikoa erabiltzen duten gainontzeko erabiltzaileei jartzen zaien bezalaxe». Bestelakoan, bide pu-

# Lanerako ibilgailua behar dutenentzat, neurri bereziak abian

Langile autonomoek eta enpresek banakako parkimetroak lortu ahal izango dituzte; prezioa jaitsi dute gune berdeetan



TAOgune berdeetan —Zumardi Txikian eta Geltokialdean— tarifikak jaitsi ditu Udalak. IRATXE ETXEBESTE

blikoan ibilgailuen aparkamentu mugatuko sistemarekin zerikusia duten gainontzeko gai edo alderdietan sistemari buruz indarrean dagoen udal ordenantza erabiliko dela esan dute udal ordezkariak.

Banakako parkimetroa alokairuan emango die erabiltzaileei Udalak, eta horiek, ordainetan, diru kopuru bat ordaindu beharko dute alde aurretik. Karga txartela ere eskuratu beharko dute, eta txartela kargatzeko aukera izango dute erabiltzaileek handik aurrera. Karga bakoitza 30 eurokoa izango da, eta txartela eskuratu ahal izateko 10 euro ordaindu beharko dute. Parkimetroa erabiltzen dutenentzat bera izango da salneurria TAO gune urdin, berde eta marroietara-

ko: 0,005 euro ordaindu beharko dute minutuko.

Tolosako udal ordezkariak uste dute neurri berezi horrek «abantaila handia» eskainiko diela erabiltzaileei, batik bat «txartela merkeago lortzeko aukera izango dutelako». Ez dute zehaztu oraindik noiz jarriko duten abian banakako parkimetroa, baina iragarri dute laster izango dela sistema hori erabiltzeko moduan.

## Tarifa berriak gune berdetan

Gainerako erabiltzaileei ere erraztu nahi dizkie Udalak TAO gune batzutan aparkatu ahal izateko bideak. Gune berdeetan —Geltokialdean eta Zumardi Txiki inguruan— prezioa jaistea erabaki dute, «zentimo-

ekin gora eta behera ibiltzeak arazo handiak ematen zituelako orain arte».

Lehen egun erdiz inguru horietan aparkatzeagatik 1,65 euro ordaindu behar baziren, orain 1,50 euro ordaindu beharko dute erabiltzaileek, hortaz, eta egun osoko tarifa 3 eurokoa izango da; lehengo 3,30 euroren aldean, 30 zentimo gutxiago ordaindu beharko dute erabiltzaileek aurrerantzean. «Zentimoekin atzera eta aurrera erabili behar ez izateak onura handia ekarriko die herritarrei, eta neurri aproposa dela uste dugu horregatik», esan dute udal ordezkariak. Gainerako guneetan orain arteko prezio berak mantenduko dituzte, gisa horretara «ondo ari direlako funtzionatzen».

## PARKIMETROA ▶

### LORTZEKO IRIZPIDEAK

**Norentzat.** Tolosan kokatuta dauden merkataritza establezimendu, enpresa eta langile autonomoentzat eta Tolosako helbidea duten ibilgailuen jabeentzat.

**Agiriak.** Parkimetroa lortzeko ondorengo agiriak (berezkoak eta fotokopiak) aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek: ▶ Jardueraren udal lizentzia edo autonomoetako alta.

▶ Ibilgailuen zirkulazio baimena. Dokumentu honetan jasotako datuek ibilgailua enpresarekin edota honen jabearekin erlazionatu beharko dute. Ibilgailua enpresako langile batena bada eta enpresaren zerbitzurako erabiltzen bada, langilearen eta enpresaren arteko harremana frogatu beharko da.

▶ Orokorrean, garraio txartela duten industri ibilgailuak izan behar dute; edo enpresaren edo establezimenduaren izenarekin identifikatutako ibilgailu mistoak.

▶ Banakako parkimetroak banan banako egoeraren arabera emango dira.

Emateko garaian oinarri izango dira eskatzen den jarduerarekin azterketa eta baldintzak betetzen direla frogatzea; Udalak ahalmena du jarraipena egiteko, eskatu den helburuetarako erabiltzen dela egiaztatzeko. Udalak banakako parkimetroaren zerbitzu hau balio gabe uzteko ahalmena du, baldin eta ikusten badu hasiera batean pentsatutako helburuak ez dituela betetzen sistemak.

### SALNEURRIAK

**Alokairuan.** Alokairuan ematen da parkimetroa, eta alde aurretik 170 euro ordaindu behar dira. Karga txartelak 10 euro balio du, eta txartelaren karga bakoitza 30 eurokoa izango da.

# www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



PALETA ▶

# Lontxo-Nazabal gaurko finalerako sailkatu dira

Partidu gogorra izan zuten; beste finalerdia jokatzen ari zen erredakzioa ixtean

LEIRE MONTES

Amaitzear da Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketa. Finala jokatuko duten bi bikoteak jakinak dira dagoeneko. Atzo jokatu ziren txapelketako finalerdiak, eta Lontxo-Nazabal bikoteak lortu zuen finalerako txartela partidu luze eta gogor baten ondoren. Beste finalerdia asko berandutu zen eta jokatzen ari zen erredakzioa ixterakoan. Gaur izango dute lehia handia; 19:00etan hasiko da hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partida, eta ondoren ekingo diote finalari. Berazubiko frontoian.

Tolosa CFko lehendakari Jon Aldazabalen esanetan, «maila bikaina» ikusi da aurtengo txapelketan: «Gero eta maila hobea izaten da. Txapelketan izena ematen duten bikote berriak primeran aritzen dira, eta lehia estuagoa egiten dute urtetik urtera».

Ezuste horiek ere izan dela dio: «Orain arte bikote berriak iristen ziren urtero azken txanpara. Baina aurtun bi bikote izango dira finalerdietan, lehendabiziko aldiz: Goitia-Oter-



Lontxo-Nazabal eta Zabaleta-Urdanpileta aurrez aurre, atzo. LEIRE MONTES

## AZKEN TXANPA ▶

### Multzo bakoitzeko bigarrenen arteko lehia.

- ▶ Renobales-Imaz 12 / Lontxo-Nazabal 20.
- ▶ Renobales-Imaz 10 / Yugueros-Aldazabal 20.
- ▶ Yugueros-Aldazabal 11 / Lontxo-Nazabal 20.

### Finalerdiak.

- ▶ Lontxo-Nazabal 30 / Zabaleta-Urdanpileta 26.
- ▶ Otermin-Goitia ?? / Maiza anaiak ??.

### 3. eta 4. postuak.

- ▶ Zabaleta-Urdanpileta / atzoko beste galtzailea.

### Finala.

- ▶ Lontxo-Nazabal / atzoko beste irabazlea.

min eta Lontxo-Nazabal. Txapelketa polita egiten ari dira. Emozioa badu aurtengo txapelketak».

Aldazabalek bazuen, dena den, faboritorik: «Zabaleta-Urdanpileta izaten dira urtero nagusi, eta aurtun ere uste nuen haiek irabaziko zutela, baina galdu egin dute». Behin betiko erantzuna, beraz, gaur.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- Ikaztegjeta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxis: 67 04 20
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aurrerri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

### EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Tolosa: Kale Nagusia, 7 (Tolosa); 943 67 06 48. Gimeno: Elbarren, 52 (Leitza); 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaaldea.** 687 41 00 22 anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaldea.** 687 41 01 18. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

MENDIA ▶

# Etzi egin nahi dute gailurra Pasabanek eta espediziokideek

Eguraldi txarragatik oinarritzko kanpamentuan «nahi baino gehiago» egon behar izan dute

L. MONTES

Etzi izan daiteke eguna. Edurne Pasaban mendizale tolosarrak eta haren espediziokideek igandean gailurra egin nahi zutela azaldu zuten aste hasieran.

Eta K2an (8.611 metro) eguraldiak laguntzen badu, horri ekingo diote.

Eguraldi txarrak K2ren oinarritzko kanpamentuan nahi baino denbora gehiago egotea behar hartu ditu mendizaleak, baina

tolosarrak «urduri eta itxaropentsu» dagoela idatzi zuen bere web orrian: «Espedizio guztiak gauza bera ari gara pentsatzen. Badakigu K2ak emango dizkigun aukerak urriak direla, eta aroberatu egin behar ditugula».

Materiala prest dute eta goialdean ere hornitu dute guztia; eguraldi onaren zain dira orain: «Eguraldi ona datorrela iragarri dute astebururako. Ea behingoz ala den», idatzi zuen tolosarrak.

Gauzak horrela, «pikkanaka-pikkanaka gora egitea» da espediziokideen asmoa: «Gure asmoa ostegunean [atzo] biga-



Pasaban, oinarritzko kanpamentuan. WWW.EDURNEPASABAN.NET

rrren kanpamentura igotzea da, ostiralean [gaur] hirugarrenara iritsi eta larunbatean [bihar] laugarrenara. Igandean [etzi] gailurra egiten saiatuko gara».

## iragarki laburrak ▶

### GALDUTAKOAK

**Katua.** Katua galdu da Beotibar kale inguruan. Zintzarria darama. Aho ondoan orban beltza dauka. 943 65 00 46.

### SALGAI

**Aitzariak.** Jangelako aitzariak salgai. Egur tailatua. Telefonoa honetara deitu: 626 84 76 26.

### ESKARIAK

**Etxebizitza.** Etxebizitza erosi nahi da, Tolosan. Gutxienez 100 m<sup>2</sup> eta igogailuarekin. Inmobiliariek ez deitu. 677 00 00 05, 943 67 10 20.

### LAN ESKAINTZA

**Alegian.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko Alegian. Orduetgia 10:30etik 14:30era. Telefonoa.: 943 65 30 34 (deitu

arratsaldetan).

**Taberna.** Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. Helbide honetara bidali eskariak: P.K. 171, Villabona.

VILLABONA ▶ SANTIO JAIK

# Bihartik hilaren amaiera arte, Santio jaiak herriko haur eta heldu guztiei zuzenduta

Erreboteko lehen partiduaren omenaldia, haur ekintzak eta gazteen partaidetza nabarmendu dute; «ondo pasatzea» eta egindako lana aipatu nahi du alkateak

JOXEMI SAIZAR

Heldu dira Villabonako santioak. Bihar hasi eta hilaren amaiera arte, San Inazio eguna, luzatuko dira. Duela egun batzuk aurkeztu zuten udal ordezkariak aurtengo egitaraua, herriko haur eta heldu guztiei zuzenduta.

Alde batetik Villabona-Hazparne lehen errebote partidaren 75. urtemuga izanik, omenaldi eta ekitaldi berezia izango da 31n. Haurrei zuzendutako ekitaldiak ere aipatzekoak dira, ia egunero baitago zer-bait. Onddo gazte asanbladaren partaidetza ere azpimarratu behar da, «bereziki» hartu



Soka dantza aurten ere eskainiko dute Erreboten plazan Santio egunean arratsaldean. UNAI URREAGA

dutelako parte eta txupinazoa botako dutelako. Sociedad Alcohólica eta Otxabiko DJ jaia aipatu behar dira musika atalean.

## Alkatearen nahiak

Bigarren urtez biziko ditu Bakartxo Tejeriak santioak. Herriar guztiei «ondo pasatzea» opa die eta tabernariei eta txosnei «oso berandu» ez itzea eskatzen die, herritarrek lo egin behar dutela kontuan izanda.

Festa Batzordeak eta herriko elkarteek egindako lana gorai-patu du Tejeriak. «Egitaraua asko ez aldatu arren, lan izugarria ematen du antolatzeak», dio.

Txikitako jaiet buruz «oso oroimen onak» ditu alkateak: «Luzeak dira, baina dena gutxi iruditzen zitzaigun. Auto-txo-keak etortzeak hasiera esan nahi zuen. Desiatzen geunden» Lehen parrandak, goizaldeko zezenak, dantza... oroitzen ditu bereziki.

Aurtengo jaiak ekitaldi ofizialeetan —meza, prozesioa, jubilatuen bazkaria, omenaldia— eta udaletxean lanean biziko ditu.

## EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

Uztailaren 24tik 31ra bitarte, ekintza eta ikusizun ugari izango da Villabonako Santio jaietan.

### UZTAILAK 24

12:00. Jaien hasierako txupinazoa eta kanpai errepika.

**Ondoren.** Poteo herrikoia.

12:30. Erraldoi eta buruhandien irteera.

13:30. Bazkari herrikoia Berdura plazan trikitalariak alaituta.

**Ondoren.** Kalejira Arkaitz eta Aintzane trikitalariekin.

18:30. Gaur jaia haur jaialdia plazan.

19:00. Pilota partidak plazan, Behar-Zana elkartearen eskutik.

23:00. Danborrada herrian zehar.

**Ondoren.** Kalejira Incansables txarangarekin.

00:00. Nekin taldea.

### UZTAILAK 25

09:00. Sokamuturra plazan

Tolosako dultzaineroek alaituta.

09:30. Diana-kalejira Villabonako Santio txistulari taldearekin.

10:00. Kalejira Tolosako dultzaineroekin kros herrikoia inguruan.

10:00. Kros herrikoia Zunbeltz elkartearen eskutik.

11:00. Dantzari-bixkien kalejira auzoz auzo.

12:00. Meza nagusia parrokiaren.

12:30. Kalejira Faltzesko musika bandarekin.

13:00. Faltzesko musika bandaren kontzertua plazan.

13:00. Udal korporazioak urteroko bisita Santiago egoitzara.

17:00. Dantzari txikien emanaldia plazan.

18:00. Soka dantza plazan.

19:30-21:30. Dantzaldia Ekliptse taldearekin.

22:30. Villabonako Oinkari dantza taldearen emanaldia Arroan.

00:00. Dantzaldia Ekliptse taldearekin.

### UZTAILAK 26

09:00. Sokamuturra plazan

Tolosako dultzaineroek alaituta.

10:30-13:30. Jolas parkea haurrentzat plazan.

16:00. Mus txapelketa herrikoia Berdura Plazan.

17:00-19:00. Jolas parkea plazan.

19:00. Karaokea haurrentzat plazan.

19:00. Pilota partidak Olaederra kiroldegiko frontoian.

19:30. Sagardo eta txekor dastaketa Txermingo ikastolan.

22:00. Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia Gurea aretoan.

23:00. Erromeria Tapia eta Leturia taldearekin.

### UZTAILAK 27

11:00-14:00. Eskulanen erakusketa Berdura plazan.

12:00. Meza parrokiaren.

14:00. Bazkaria Txermingo ikastolan.

10:30-13:30. Tailerrak eta

Sum magoa haur jaialdia plazan.

18:30. Joko-Garbi pilota patida Iparraldeko taldeekin plazan.

20:00-22:00. Dantzaldia Egan taldearekin plazan.

22:30. Eresargi-biki abesbatzaren kantaldia Arroan.

00:00. Dantzaldia Eganekin.

### UZTAILAK 29

11:30-13:30. Haur jolasak plazan Oinkari dantza taldearen eskutik.

16:00. Haur txirindularitza jaialdia Olaederra-Aroa inguruan.

17:30. Erraldoi eta buruhandien irteera.

18:30. Futbito txapelketaren finala plazan.

23:00. Disko festa plazan.

24:00. DJ Jaia Otxabiko parkean.

### UZTAILAK 30

11:00-13:30. Gorriti haur jaialdia plazan.

14:30. Koadriren bazkaria Etxe-Ondon.

**Ondoren.** Kalejira Incansables txarangarekin.

20:00. Erromeria Triki Ta Ke taldearekin plazan.

22:30. Bertsolariak Arroan: Sustrai Kolina, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Txomin Garmendia eta Jose Agirre.

00:00. Erromeria Triki Ta Ke taldearekin plazan.

### UZTAILAK 31

09:00. Kalejira Villabonako Santio txistulari taldearekin.


11:00-14:00. Rompecabezas eta Patxin-Potxin haur jaialdia Arroan.

11:00. Hazparne-Villabona errebote partida plazan.

17:30. Erraldoi eta buruhandien irteera.

18:00. Herri kirolak Arroan Villabona eta Belauntzako taldeekin.

23:00. Rock kontzertua plazan Villabonako Agatutz eta SA taldeekin.



HITZak zozketatutako *Leidor Zineman* astebukaera honetan 'SPIDERMAN 2' filma ikusteko bi sarreraren irabazlea: **BLANCA ISABEL ESPINOSA RAZKIN (TOLOSA)**

GUTUN@K 

► izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gezurrei erantzunaz

Joan den ekainaren 23an, TOLOSALDEKO HITZAN, Anoetako Udal Korporazioak sinatutako gutun bat argitaratu zen. Bertan, haste-ko, aurtengo Anoetako festetan jai ofizialez gainera jai alternatiboak ere egin direla esaten zen. Jarraian, jai ofizialen aurka izan omen diren zenbait ekintzaren berri ematen zen. Gauzak lapurtu, jendeari presioak egin, Udalaren kartelak kendu, eta beste hainbat gauza egin omen dituzte «haiek», «horiek», «persona batzuek». Gu identifikatuta sentitu ginen salaketa horiekin, testuaren hasieran Festa Alternatiboaren Batzardea aipatzeak ageriko egiten baituzten lotura hori. Horrenbestean, bilera bat eskatu genion alkateari, salaketa ho-

riek argi zitzen. Izan ere, esan beharrik ere ez dago, Anoetako Festa Alternatiboaren Batzardeak ez dio inori presiorik egin, ez du ezer lapurtu, ez du kartelak kendu.

Kostata, baina egin genuen bilera alkatearekin eta zinegotzi batekin. Beren izenean argitaratutako testuan irakurri genituen salaketak azaltzeko eskatu genien, baina azalpenen ordez aitzakiak jaso izanaren inpresioz amaitu genuen bilera. Beste gauza askoren artean, testua idatzitakoan ez zeukatelako gertatutakoaren informazio osoa esan ziguten, edo testuan egindako salaketak ez zirela Festa Alternatiboaren Batzardeari zuzenduak (nahiz eta testuaren hasieran eta bukaeran aipamena egiten zaion batzorde horri), edo testukoak ez zirela salaketak, «konstatazio» hutsak baizik. Behin eta

berriz erabili zituzten aitzakia horiek, lotsagorritu gabe.

HITZAKO gutunean gure aurka esandakoak gezurrak direnez, eta horiek justifikatzeko baleko argumenturik eman ez zigutenez, salaketa horiek guztiak ezeztatze eskatu genien, bilerraren amaieran. Salaketak publikoki egin zirenez, zuzenketak ere publikoak behar zuela esan genien. Hamar eguneko epea eman genien hori egiteko. Badi-ra hamabost egun bilera hura egin genuela, baina ez dute egindako salaketak zuzentzekorik egin.

Ez pentsa Udalaren jokaera ulertzen saiatu ez garenik. Udal Korporazioaren gutunak eraso baten aurrean egindako defentsa zirudien. Baina zergatik sentitu dute beren burua defenditu beharra jai alternatiboaren aurrean? Jai alternatiboak ez dira era-

so bat izan. Urtean zehar udalerekin gurekin partekatatu nahi ez dutenekin ez genuen festarik ospatu nahi, horixe zen guztia. Gure jaiak gure artean egin nahi genituen. Udalak egin zitza bere jaiak bake santuan, guk gureak egingo genituen eta.

Baina, orduan, zergatik defenditu? Zergatik bihurtu da eraso, herriko jende talde batek bere kabuz egin duen festa? Gure susmoa, udal korporazioak bere «konstatazioetan» agerian jarri ez dituen datuez defenditu beharra sentitu duela da. Izan ere, jai ofizialeko kontzertu gehienetan ez da ia jenderik ibili, frontoian antolaturiko ekitaldi batean ez ziren hamabost lagun bildu, urtero herriko jendeak egin dituen ekintzak egiteko kanpoko jendeari deika aritu behar izan dute... Guk bai, guk egin ditza-kegu «konstatazio» horiek, lo-

tsagorritu gabe, gezurrik esan gabe.

Honek guztiak hausnarketa sakona eginarazi beharko ligu-ke. Herriko jende talde batek berea egin duenean, Udalaren festa hankatrabatu dugula esan digute. Beraien festan parte hartu nahi ez izana erasotzat daukate, guk alde egitean plaza hustu baitzaie. Baina, orduan, zein-entzat antolatu nahi zituzten festak? Udalean onartu ez dituzten haientzat? Plaza hutsaren alkate edo zinegotzi izan dira festa hauetan, bai urte osoan.

Duela bi asteko bilera hartan «guk» ere HITZARA gutunak bidaltzen ditugula esan ziguten behin baino gehiagotan. Berdina omen da beraiek egin dutena. Ez, jauna: guk ez dugu gezurrik esan.

FESTA ALTERNATIBOEN BATZORDEA ► ANOETA

BALIARRAIN ► JAIAK

# Dena prest Andra Mari jaietarako

Abuztuaren 14ean hasiko dira jaiak; aurretik, abuztuaren 8an, plater hausketa txapelketa herrikoia egingo dute

OLAIA ESKITXABEL

Hiru egun iraungo dute Andra Mari jaiak; abuztuaren 14ean hasi eta abuztuaren 16ra bitarteko ekitaldi ugari izango dira.

Hala ere, jaietako errikitzaren hasieratik aurrerako igandean, abuztuaren 8an, plater hausketa txapelketa herrikoia burutuko dute.

Kirol ekitaldiek aparteko garrantzia hartu dute aurturtean; jaietako errikitzaren hasieratik aurrerako igandean, abuztuaren 8an, plater hausketa txapelketa herrikoia burutuko dute.

Iganderako ere, abuztuaren 15erako, kirol ekitaldi ugari antolatu dituzte. Goizean, Baliarrainera bizikletaz igotzeko proba ezaguna egingo dute. Arratsaldean, ibilbide bera egingo dute txirrindulari batek eta sei korrikalarik errelebotan. Zein lehenago iritsi apustua egin dute; 300 euro daude jokoan. Ondoren, herri kirolak izango dira: trontzan, harria jasotzen, segan, korrikan eta aizkoran ariko dira. Bukatzeko, mutil eta neska gaztetxoaren arteko soka-tira saioa izango da ikusgai. Eta, ondoren, nola ez, XX. Asto Lasterketa.

Jaietako azken egunean, herri mailako maratokia eta toka txapelketa herrikoia egingo dituzte. Kirolak ezezik, musika eskaintza ere zabala izango da. DJ Bull irurarrak, trikitilariak,

EGITARRAUA ►

ABUZTUAK 8

11:00. Plater hausketa txapelketa herrikoia.

ABUZTUAK 14

11:00. Jaietako hasiera.  
11:30. Herri mailako pilota partidak.  
18:00. Berastegiko dantza taldea.  
19:00. VI. Tortila Patata Lehiaketa.  
23:00. DJ Bull disko festa goizaldera arte.

ABUZTUAK 15

11:00. Meza nagusia.  
12:00. XLII. Txirrindulari Igoera Jexux Nazabalen XVI. Oroitzapenean.  
Ondoren. Irma eta Amets trikitilariak.  
18:00. Apustua.

Ondoren. Herri kirolak.  
Jarraian. XX. Asto Lasterketa.  
23:00. *Greban gaude* antzezlan.  
Ondoren. Etxabe anaiak taldea goizaldera arte.

ABUZTUAK 16

11:00. Meza nagusia.  
Ondoren, hirugarren adinekoentzat hamaiketako.  
12:00. Herri mailako maratokia.  
Ondoren. Toka txapelketa herrikoia. Giroa, lune eta Ziortza trikitilariak alaituko dute.  
17:00. Haur jolasak.  
Ondoren. Poxpolo eta Mokolo pailazoaren emanaldia.  
21:00. Herri afaria. Ondoren, Nekin taldearen saioa goizaldera arte.  
Tarteetan. Helduetarako jolasak.

mailako maratokia eta toka txapelketa herrikoia egingo dituzte.

Kirolak ezezik, musika eskaintza ere zabala izango da. DJ Bull irurarrak, trikitilariak,

Nekin taldeak... goizaldera arteko saioak eskainiko dituzte.

Egitarrak prest, orain jaiak noiz iritsiko zain egotea besteik ere zaie geratzen baliarraindarrei.

AMEZKETA ►

EHNA egiteko aukera izango da igandean

Igandean, 12:00etatik 14:00etara, udalbatzar aretoan EHNA egiteko aukera izango da, horrela, «aurrereko aldiaren egiteko aukerarik izan ez zuten herritarrek aukera izan dezaten», diote antolatzaileek. Errolda agiria, hiru argazki eta 15 euro eramane behar dira agiria egiteko; 14 urtetik beherakoek familia liburua aurkeztu behar dute.

AMEZKETA ►

Buruntzuingo bazkideentzat oharra

Buruntzuingo aterpea konpontzeko lanean aritu dira azken hilabeteetan. Lanak bukatutzat emateko aterpearen garbiketa egingo da bihar, larunbata. Gauzak horrela, Buruntzuingo bazkideei aterpera lanera gerturatzeko deia luzatzen zaie. Hitzordua Amezketa plaza izango da bihar 07:00etan.

ORENDAIN ►



Eskualdeko hainbat herritan izan dira Nabarraldeko kideak. HITZA

Nabarralderen hitzaldia, etzi

*Nafarroa osoa* deritzon hitzaldia eskainiko du Erlantz Urtsun hizlariak bihar, udalbatzar aretoan; Orendain Abian plataformak antolatutako ekimena da honakoa. Hitzaldiaren amaieran Nabarralde ekimena aurkeztuko dute. Hitzaldia, 19:30ean hasiko da eta ondoren afaria egingo dute Eltxo elkartearen bertara joan nahi dutenek, izena eman dezakete Elkartean bertan edota Ostatu tabernan.



## BERASTEGI ▶ KULTURA



Goizero, astelehenetik ostiralera Plazaolako auzolanean landaretza garbitzen lanean aritzen diren hogeitaz gazteak. D. GIBELALDE

## Plazaolako ondare historikoa berreskuratuz

Hiru begiralerekin batera, hogeitaz gazte ari dira egunotan Plazaolako burdinola bateko landaretza garbitzen

DANI GIBELALDE

**A**ndoin, Berastegi, El-duain eta Villabonako udalek, Gaztekutxak eta Aranzadi zientzia elkarteak elkarlanean antolatutako auzolanean ari dira lanean egunotan hogeitaz gazte, euren borondatez.

Auzolandegiak egiten diren hirugarren urtea da aurten goa. Gehienak gipuzkoarrak

dira, 16-19 urte artekoak; aurreko urteekin alderatuz, jende gazteagoak eman du izena. Hiru begiralderen ardurapean daude, Aranzadiko hiru teknikari, hain zuzen. Jaione Iriondo da zuzendaria, eta gainerako biak Tito Agirre eta Asier Izagirre dira.

Joan den astelehenean egin zen auzolandegiaren aurkezpena Andoaingo udaltxean. Asteartean hasi ziren lanean,

eta datorren osteguna arte ariko dira ekinean. Astelehenetik ostiralera, 09:00etan hasi eta 13:30ak arte aritzen dira Plazaolako burdinola garrantzitsuenetarikoa berreskuratzeko ahaleginean. Berastegiko eskolan jan eta lo egiten dute gazteek, eta bertan izango dira 15 egunez.

### Bestelako ekintzak

Lana bai, baina gazteak formatzeko ere bestelako ekintzak egiten dituzte arratsaldeetan eta asteburuetan. Auzolandegiko zuzendari Jaione Iriondo-ren hitzetan, «gazteek burdinaren inguruko ezagutza areagotzen saiatzen gara, garai hartan

Plazaolan, bertako landaretza garbitzen ari dira gazteak. Aizkorarekin, guraizeekin, eta batez ere aitzurraekin kentzen dute gazteak landaretza. Zuhaitz ugari topatu dituzte garbitzerakoan. Gazteek aipatu dutenez, «lana gogorra da, baina gogotsu joaten gara. Lagun berriak egin eta jendea ezagutzeko aukera ona da auzolandegia». Bizkotzeko meategiak oso gertu daude gazteak lanean aritzen diren tokitik, kilometro eta erdira, gutxi gorabehera.

XV. mendean lehen burdinola sortu ziren Leitzaranen: Plazaolako, Oilokikoa, Amearaungoa... hamabi bat guztira. Burdinaren bailara da Leitzaran. Burdinola martxan jartzeko hiru osagarri behar-beharrezkoak ziren: ura, burdin minerala eta egurra. Ura hartzeko erreka badago, eta ikatza egiteko egur asko ere bai. Gorpil hidraulikoen bidez martxan jartzen zizuten burdinola. Ondare historiko gehienak El-duain eta Berastegin daude.

Auzolandegiko bultzatzaileen asmoa «pixkanaka-pixkanaka ondare historikoa berreskuratzen hastea da. Panel informatiboak jartzeko asmoa dugu inguru honetan, bertako historia azalduz eta elementu desberdinekin, jendeak zer dagoen eta zer nolako balioa duen jakiteko».



Landaretza garbitzen lan handia egiten dute gazteek. D. GIBELALDE

**IBARRA LAN BERTIKALAK**

MARGO LANAK - IGLTSEROTZA - UR GIDATZEA - GARBIKETAK  
APAINGARRI KONPONKETA - USOEN AURKAKO SISTEMAK

Azkuete, 11 • 2.A • IBARRA  
mug.: 619 877 397 - 677 667 278

**Andamiorik gabeko lanak**

### iragarki laburrak ▶

**Haurtzaindegia**, eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak. Eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaitez. Informazioa doan. 943 650193.

**Laborategiko teknikari**, laguntzaileak. Plazak libreak udaltxean,

Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarako. **Informazioa doan. 943 650193.**  
**Suhiltzaileak.** Sarrera berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara. Soldata, gutxi gorabehera: 1.500 euro. **Informazioa doan. 943 650193.**  
**Administrariak.** Laguntzaileak nahiz

teknikariak. Udaltxean eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza Eskola Graduatua. Informazioa doan 943 650193.

**Ingurumena.** Langile, teknikari eta agenteak udaltxean, Foru Aldundi eta

Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. **Informazioa doan. 943650193.**

**Basozaina.** 17 postu libre eskaintza lanpostuan egin ezazu lan. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa doan. 943 650193.

**Gizarte laguntzaileak.** Hurrengo

deialdiak Gipuzkoako udaltxean ezberdinetan eta Foru Aldundian. **Informazioa doan. 943 650193.**  
**Sukaldari** laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 650193.

KIROLA ▶

# Igandean izanen dute txapelketako azken saioa sokatiralariek

Pisu handikoen finala jokatuko da Azpeitian; Leitzan Haur Igeriketaren XVII. Bileran burutuko da bihar igerilekuan



Aresoko sokatiralariek entrenamendu saioan, jarraitu beharreko plangintzaz hizketan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Igande honetan, etzi beraz, jokatuko da Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako azken saioa, pisu handietako finalak burutuko baitira, Azpeitian goiz partean. 11:00ak dira hitzordu zehatza, txapelketako orain arteko saio guztiak larunbat arratsaldetan jokatuko badira ere. Igandea jai eguna da eta horregatik berezitasuna.

Gauzak horrela, igandeko saioan, 640 eta 680 kiloko finalak jokatuko dituzte ondorengo talde hauek: Mutriku,

Goiherri, Gaztediko A eta B taldeak, Nuarbe eta, noski, Aresok. Esan behar da 680 kilokoa, Gaztedikoek talde bakarra aterako dutela belar gainera.

Aresoko sokatiralariek beraien adierazi dutenez, 640ekoan bigarren postua eskuratzeko aukera tiki bat ba omen dute, horretarako Gaztedi A taldearekin lehia bizia jokatuko beharrean badaude ere. Herrikoek beren prestaketa, nagusiki pisu arinetara bideratu dute eta aurreko asteburuan emaitza ezin hobekak eskuratu ere egin dituzte. Baina igandearako, pisu handitan sartzeko, alegia, «aste honetan pisua irabazi behar dugu, bakoitzak hiru kilo bai, eta horrekin 24-25 gehiago izanen ditu taldeak eta pisuan, beste taldeekiko alde pixka bat tikiagotuko dugu horrela», zioten eta «ditugun indar guztiak erabiliko ditugu, ahalik eta sailkapen hobereana eskuratzeko» gehituz.

## Igeriketa bilera

Bestalde bihar arratsaldean, 16:30ean hasita, burutuko da XVII. Haur Igeriketa Bileran, Leitzako igerilekuan.

Bertan, Leitzan nahiz inguruko herrietatik etorritako 12 urtez behiko umek parte hartuko dute bi sailetan: 10 urtez azpikoek 25 metroko luzero bat

egin beharko dute eta besteek, 50 metro, croll eran edo bizkarrez. Izena eman duten guztiak parte hartu dezaten, behar haina txanda eginen omen dituzte, ekintza honen antolatzaile den guraso elkarteak jakitera eman duenez.

Bilkura honen intenzioa igeriketarako afizioa sortzea dela nabarmendu dute eta hori izanik helburu garrantzitsuena «bakoitzaren denborak eta hartu, hartzen dira, baina guztiak banatzen zaizkie opariak. Umeen arteko lehiakortasun hori ekidin nahi dugu», zioten.

Ariketa egin ondoren, parte-hartzaileentzat arratsaldeko banatuko dute.

Jarduera hau antolatzeko diru laguntza, herriko hamaika denda eta lantokik eman dutela adierazi dute ere.



Bilera igerilekuan eginen da. J. A.



## Zintzilikako lorategiak...

**LOREZAINZA** ▶ Negu hotza igaro eta udaberriko lehendabiziko eguzki epelarekin batera, baratzak eta alorretan goldeek lanari ekiten diote, aurrean egokitzen diren lur guztiak irauliz, lurra neguko lotik esnatu nahirik bezala. Modu beretsuan gertatzen da etxeetako leiho eta balkoietan ere: lore ihartutakoak kendu eta ontzietan, landare berriak aldatzen dira. «Hara, auzokoak jarri ditu loreak, guk ere...». J. ASTIBIA



## ...herrien edertasun

**LOREZAINZA** ▶ Hasieran loreontziak besterik ikusten ez baziren ere, udaberria udatu ahala, pazientzia eta zaintza tarteko, hamaika koloretako eta motatako landare mardul, loretsu eta usaintsu ageri dira etxeetako leiho, balkoi, eta herrietako txokoetan. Oraintxe daude bete-betean eta opor garaia dela kontutan hartuz, aisialdiko une hauek herrietako kaleetan barrena ibiltzeko baliak daitezke, loreak aitzaki. J. ASTIBIA

## SAILKAPENA ▶

### LUR GAINEKO SARIA

#### 640 kilo.

1. Nuarbe	18 puntu
2. Gaztedi A	13 puntu
3. Areso	11,5 puntu
4. Goiherri	10,5 puntu
5. Mutriku	6,5 puntu
6. Gaztedi B	3,5 puntu

#### 680 kilo.

1. Nuarbe	15 puntu
2. Gaztedi	11 puntu
3. Mutriku	9 puntu
4. Areso	6 puntu
5. Goiherri	4 puntu

## iragarki laburrak ▶



Amazabal kalea, 37-behea  
31880 LEITZA (Nafarroa)  
**Tel.: 948 51 05 34**  
**mug.: 649 47 66 15**  
e-mail:  
[jmbuldain@eresmas.com](mailto:jmbuldain@eresmas.com)

**Berrobi.** Hiru etbe abiki unifamiliarrak. 160 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, 50 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 40 m<sup>2</sup>-ko lorategia.

**Leitza.** Hiru logelako pisua salgai, sukalde eta bainugela berria, egongela, balkoia eta ganbara. 129.217,60 euro.

**Leitza.** Taberna oso ederra eta polita salgai. 300.506,05 euro.

**Leitza.** Leitzako poligono industrialean, luxuzko jatetxe-taberna salgai.

**Leitza, Areso eta Gorritin** izan daitezkeen salerosketen informazioa [daukagu.com](http://daukagu.com).

**AIURRI ▶**



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 217.a.  
**Orrialdeak.** 36.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** Jaiak Andoainen, Zizurkilen eta Adunan; udan lapurretak saihesteko aholkuak.  
**Beste gaiak.** Igor Sarasua erremontista; Arkaitz Morabide diseinatzailea; Hazparneko lagunen bisita.  
**Argitaratzailea.** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.  
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.  
 20.150 Amasa-Villabona  
 ▶ 943 69 64 50  
 ▶ aiurri@topagunea.com  
 ▶ www.aiurri.com



**Botilak hartu eta ur freskoaren bila**

**VILLABONA ▶** Sukaldean aritzeko, edateko... etxeko ura hartu baino nahiago izaten dute askok aspaldiko ohiturari jarraituz ezagunak diren iturrietako ura hartzea; hori da, esaterako, Villabonako Ernio-bea auzoko iturriaren kasua. Jendea botilak edota bidioiak hartuta bertan dagoen iturriara joaten da ura hartzera; ez da kasu bakarra. Amarozero, Txaramara, Baliarrainera... ere joaten dira asko eta asko. Egun hauetako beroari aurre egiteko etxeko ura baino freskoagoa izaten da iturri horietakoa; baina bestelako ezaugarriak ere izango du hainbeste urtetan ohitura hori mantendu denerako. JOXEMI SAIZAR

**GALTZAUNDI ▶**



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 196.a.  
**Orrialdeak.** 24.  
**Tirada.** 5.500 ale.  
**Gai nagusia.** Hemen daude sahararrak; zigiluak euskaraz ere bai; inmigranteen inbasio garaia; organu emaileak eta Finlandiara bidaiak.  
**Erreportaia.** Nekazaritza ekologikoa.  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
 ▶ Nafarroa etorbidea 6, behea (Tolosa)  
 ▶ 943 65 50 04  
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
 ▶ www.galtzaundi.com

**AGENDA ▶**

**DEIALDIK**

**Alegia.** Abuztuaren 1ean Arantzazura erromesaldira joateko izen-ematea zabalik.  
**Altzo.** Uztailaren 30ean, San Inazio jaietako egitarauaren baitan antolatutako zikro-jeterako txartelak salgai Arandia jatebean.  
**Amezketak.** Buruntzuningo aterpea bukuntzera joateko deialdia bazkideei. Bihar herriko plazan bilduko dira 07:00etan.  
**Amezketak.** EHNA egiteko aukera izango da igandean

12:00etatik 14:00etara udalbatzar aretoan.  
**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuen elkarteak Olitera (Nafarroa) bidaiara antolatzeko asmotan dira. Joan nahi duenak izena eman dezake Gaztainondon, doan.  
**Ibarra.** Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, eta Arkaitz Azpin eta Txumitxan.  
**Villabona.** EHNA tramitatzeko aukera izango dute herritarrek bihar, 11:00etatik 14:00etara herriko plazan. Batasunak deitutako ekimena da.

**ERAKUSKETA**

**Altzo.** *Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona* erakusketa. Bisita gidatuak. Sarrera doan.  
**Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradako argazkien erakusketa; hilaren amaiera bitarte Benito Izagirre kultur etxean.  
**JAIK**  
**Villabona.** Bihar 12:00etan jaien hasierako txupinazoa eta kanpai errepika; ondoren, potero herrikoa; 12:30ean, erraldoi eta buruhandien irteera

Loatzo musika eskolako ikasleen musikarekin; 13:30ean, bazkari herrikoa; ondoren, kalejira Arkaitz eta Aintzane trkitilarietara; 18:30ean, Gaur Jaia haur jaialdia plazan; 19:00etan, pilota partidak Behar-zana elkarteak antolatuta; 23:00etan, danborrada herrian zehar; ondoren, kalejira Incansables txarangarekin; 24:00etan, dantzaldia plazan Nekin taldearen eskutik.

**MENDI IRTEERAK**

**Tolosa.** Asteburuan Pirinioetara, Canfranc-

Panticosa ingurura, irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak. Anayet (2.559 m) eta Arriel (2.824 m) gailurrak egin daitezke. Izen-ematea: Gudari 5, behea Tolosa edo 943 65 27 89. Gaur azken eguna.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Guarayra taldea Fronton kafetegian, 23:00etan. Gau Giro zikloaren baitan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Spiderman II* filma Leidor zinema aretoan. 22:30ean.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Aitzol Zubeldia Ibarluzea. Gaur 12 urte. Zorionak guraso, anaia, aitona eta lehengusuruz guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Igor Manso (Elduain). Gaur 7 urte. Zorionak gurasoen eta Unaien partetik.

**HITZA, zorion agurren tarteak**  
 Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberritako... zoriontzak, etorri:  
**HITZAren egoitzara**  
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)  
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.  
 Milo esker!

**EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE**  
 ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA  
 Erresuma Batuko Ilepandegiko III. Maila  
 Nazioarteko Pivot-Point Diploma  
 Gune Homologatua  
 Lan Burtsa, lanpostu indize handia  
 Goizeko eta arratsaldeko bandak  
 San Francisco 39, behea  
**TOLOSA**  
 Tel. 943 654361  
**GUREKIN, ZUZENEAN LANERA**  
 www.centrosbeta.com